

Langileen eguna... Portugalen

Alderdi, 292. zk., 1974-04/05.

Frankismoak, Italia eta Alemaniako laguntzaz gainera, bi babes bilatu zituen asiera-asieratik: Eliza eta dirua.

Frankismoak ez du ideologia bat asmatzeko bururik eta arnasik izandu; frankismoaren politikazko jo-muga guzia irauteari dagokion praktikotasun batean geratu da, eta ontan, egia esan, izan du militar maltzur onek mugi izan diren aize guziak bere aiz-oialera eramateko eskua.

Afrika eta Ozeaniako sorginak bere marakaz eta kantuz baliatzen diren bezala baliatu izan da Frankismoa eliz-oituraz.

Esan, bestela, "Cruzada" zer izan zen, ispiritu gabe jaio zen erriaren aurkako matxinadari erri-arnas bat txertatzeko asmoaz beste; esan komunismoak duen erlijio-aurkako eraginak eta beldurrak aitatzean zer elburu jarraikatu duen azken 37 urtetan. Eliza berez kezkatzen asi den bezin laixter frankismoak eliz-gizonei lotza nola ukatu dien ikusi besterik ez dago.

Francok bear eta nai duen Eliza da frankismoa defenditzen egon dena, ez besterik.

Kapitalismoarekin eta Ipar-Amerikarekin ez zaio oraindik orrenbeste gertatu, baina ekonomi arazoak okertzen asi eta kapitalistak frankismoaren ontzia usten asiko balira, eta ditekena da, komunismoaren babes bila jarriko litzake, eta au egia da, txantajea egiteko; Franco ez da jokabide au izan duen leengo diktadorea, eta, bestetik, sobietarrak ez diote eskua ukatuko komeni zaiotenean, beste prankori ere eman izan dioten bezala.

Aitatutako bi babesen adibide ona ba dugu orain, maiatzaren leengo egunean gerta denarekin.

Elizak langileen egunari San Jose arotzaren oroimena erantsi nai izan dio. Franco-k, ordea, bere biurritasun batez San Jose gaurko maio urdinez jantzi eta kapitalisten morroi molda-errexera izatera jarri du; San Josek ez bait dio gaur inori reibindikaziorik oiukatzen! Neurri ontan bertan jarri ditu Madrid-eko futbol zelaiean Franco-pean dagozen erri guzien folkloreak dantzan; ez pozez dantzan, ez, zirkoan artzak jartzen dituzten modura baizik.

Portugal-en ere alaxe oituak egon dira berrogei urtetan, eta gutxien uste izan dutenean langileak bere egiazko eguna askatasunean ospatu du.

Ez dugu exemplo txarra; ezta itxaropen makala ere; eta aurrean lan arinik ere ez.